

Nora hoa, Kixote Mantxakoa

Joseba Ossa Alzibar

Julene Azpeitia ipuin lehiaketa
1994



Zumaiaiko Udala

*emskar
txanpan*



Nora hoa, Kixote Mantxakoa

Joseba Ossa Alzibar

Julene Azpeitia 7. ipuin lehiaketa

1994

Zumaiako onenaren saria

Zumaian Julene Azpeitia ipuin lehiaketaren 25. urteurrena ospatzeko egindako digitalizazioaren emaitza, 2012ko irailean.

© Joseba Ossa Alzibar (ipuinarena)

© Zumaiako Udala (argitalpen honena)

Laguntzailea: KUTXA

LEHEN ATALA:

On Kixote Mantxakoa Lorategian

Goizeko sei t'erdia ziren. Enara batzuek aurre hartu zioten eguzkiari, eta ihintzaren freskotasunak atseginez zituen tindatzen gaueko airean zintzilikaturiko amets oro. Artean lotan zeuden loreen usain herabetia hasia zen hedatzen lorategi xarmangarri bezain landuan.

On Kixotek ez zuen lo egin gau hartan. Edo, hobeto esanda, ezin izan zuen loak hartu. Urduri zegoen... oso kezkatuta. Pauso arinez egiten zuen loreek errespetu osoz utzitako bidea. Oso bidaia luzetik zetorren, leku berri batera, eta berebiziko ilusioz bazetorren ere, lur jota geratu zitzaigun hura ikustean.

—Nire bihotz mantxa gabeak naturaren amildegi beldurgarriren batean izango du agian atsedeneku, baina ontasunak edertasunarekin batera dastatuko du piztetasunaren zirraraz liluragarria, eta ni ez naiz hemendik joango gizonek hondatutakoa konpondu gabe. Hainbeste urte eta mende bizitzaz bestalde isilik igaro ondoren... hau? Nire lur zati maite hura, nire Rozinante kuttunari jaten ematen zioten larre eder haiek... non dira? Lorategi bihurtu dituzte. Arimarik gabeko lorategi; natura basatiarekin zerikusirik ez duen leku higuigarri... Zer egin dizute? Gizonek preso hartu zaituzte. Nondik nora natura ere gizakiaren irudiko bihurtu behar hori? Zer dela-eta natura birjina eta basatia hain zabarki konkistatu eta moldatu nahi hori?

Bakarrik legoke bere bakardadean lore haiengatik ez balitz. Gauez belarriak ixten ez dituzten horietakoak ziren, eta agian horrexegatik aukeratu zuen txoko hura bere burutazioei ezpainetako atea zabaltzeko. Eta nola zabaldu, gainera! Bertsotan hasi zen penak uxatzen.

Ene lorategi gatibu hori,
ez duzu arnasa behar bezala hartzen.
Adarrak eta hostoak

kapritxoaz moztu dizkizute,
zuri ez dagokizun lez.
Ez al duzu esateko ezer?
Erraidazu, zinez,
ez ote zauden zu minez?
Nire malkoak isuriko dira,
eta aurkituko nauzu, laztana,
zuregatik negarrez.

Gero eta ozenkiago aritzen zen, baina erantzunik jasotzen ez, eta urrutira joan zitzaizkion bere pentsamenduak. Koran liburu sakratuko Suratari agertzen diren hitzak ekarri zituen gogora eta mihira.

—Bai, Koranak ere garbi dio: "errukitsuak lorategietan izanen dira, iturri oparoz inguratuz, fruituz, palmondoz eta birjina zoragarriaz inguratuz, arantzarik gabeko azufaitoen artean, debekatuko ez dituzten sagarren azpian". Baina lorategi horiek mugarik gabeak dira, natura errugabearen paradigma. Adan eta Evaren bekatua, hain zuzen, estetikoaren zen: lorategia kapritxoaz itxurez itotzea. Ez besterik. Ai!... Santxo nire adiskide minak begirada pausatuko balu zelai horietan! Gu sikiera naturarekin adiskideturik igaro ginen lur honetan zehar, izadian guri dagokigun lekua errespetatuz. Ezin dut, ez, horrelakorik ikusi.

Norbaitzuen iritziz lorategi hura bakearen, edertasunaren, orekaren eta maitasunaren adierazlerik onena zen, eta horrexegatik erabaki zuten bertara gonbidatzea On Kixote Mantxakoa, haren jaiotzaren bostehungarren urtemuga ospatzera.

Dena oso ondo planeatu zuten Kixoteraren alegiazko jarraitzaile eta miresle haiek. Jakin bazekiten Zaldun ospetsu hura aspertuta zegoela hilen artean, hain gogaikarri zitzaion zeru hartan, eta uste zuten lorategi eder batean gozatu egingo lukeela azken mendeotan berari buruz idatzitako liburu guztiak irakurtzen.

Baina ez, gure Jaun txit ohoretsuak ez zuen gogoko natur zati makilatu hura, eta gainera ez zen txintik ere zimeldu abenturetarako zuen grina eta zaletasuna.

Beraz, gau hartako pentsamendu aztoratu haien ondorioz, On Kixotek egunsentia baino lehen ihes egitea erabaki zuen. Baina nora? Eta norekin? Bera bakarrik gonbidatu zuten etorkizunerako bidaiara hartara; ez Rozinante, ezta Santxo ere.

Garai bateko zaldunak, orain gabeak, denborarik gabeko espazio batean murgiltzea erabaki zuen, betikotasunerako bidaiara abiatuko bailitz, gizakiaren garbitasun makularik gabea aurkitzeko asmoz.

BIGARREN ATALA:

Norabait bahoa, Kixote Mantxakoa

Horrela, Martzianoren aurreko garaira itzuli zen, Agripparen ontzietan Ekialde hurbileko kostaldetara iristeko asmoz, erromatarrak Galietatik etxerako itzulbidean hartuko zutelakoan, baina erromatarrak kantauriar gerretan parte hartzen hasi ziren eta ez zen ontzirik igarotzen bere sorterritik hurbilen zituen uretan.

On Kixote, ordea, leinu ospetsuko kimu izanik, ezin bertan geratu, garaikideen arrunkeriak jasaten, eta lurralde sakraturen bati lotu nahian basamortura jotzea erabaki zuen!

Halako batean, beraz, Mantxako lur idorrek zeharkatuz, artean amets goxoetan murgildurik zerraien Santxori hitzerdi bat ere esan gabe, hor doakigu, harro eta kontent, bere Rozinante berpiztuaren bila, nola edo hala aurkituko duelakoan. Baita azkar aurkitu ere. Bere zain zegoela zirudien, eta soberako hitzik gabe hegoalderantz abiatu ziren, eguzkiaren argiak itsuturik, ziztu bizian. Izan ere, hain zihoazen itsu, ezen itsasoa zeharkatu behar izan zutenean ez zirela konturatu ere egin zangopean zutena ura zenik.

Kixotek, orduan, honela esan zion Rozinanteri: "Ez dut inoiz ikusi hain lur lau eta urdinik! Itsasoaren antza handia du, baina lurra da. Lurra da, baina itsasoan gaudela dirudi. Laster amaituko da begientzako ezti den paisaia eder hau, hor bertan baitaude urdintasunari amaiera ematen dioten hondarrezko tontor horiek. Gera gaitezen apurtxo bat hementxe, atsedean hartzera eta ikuskizun xarmangarri hau dastatzera. Horrelako aukerak urriak dira-eta".

Eskerrak lurra hor bertan zegoen! Zeren atsedean hartzerakoan... uretan plast! sartu ziren, zerutik eroritako izarrak bailiren. Hala ere azalera irtetea lortu zuten, eta Rozinante, dardarka, honela zioen: "Jajauna, nik ez da-da-kit on-on-do ige-ge-ge-ri e-e-e-giten, le-le-ho-horrekoa naiz-eta".

Kixotek, berriz, ordura arte erakutsitako gozotasuna eta bihotz txairotasuna galdu zuen erabat, eta zabarki erantzun zion: "Isildu hadi, arraio hori, zergatik gelditu haiz orduan? Ahoa itxi, bestela hi ere, arrainen modura, ahotik akabatuko haiz-eta. Arre, arre! Segi aurrera!".

Rozinante errukarria, ordea, erabat izututa ez ezik hoztuta ere bazegoen, eta izugarriko katarroa harrapatu zuen. Metro gutxi batzuk egin orduko eztulka hasten zen, eta aurreratutako guztia galtzen zuten, azken abiapuntura itzuliz.

—Horrela ez goaztik inora, kakalardo hori! —bota zion Kixotek, nahita egingo balu bezala.

—Zer e-e-gin-go dut, ba-ba-da, Jauna -aa-aaa-aaaaa... (eta ordura arteko atxis!ik handiena bota behar zuela ikusirik, On Kixotek, jenio handiei dagokien lez, instante labur batean buelta-erdiko bira eman zion hankartean zuen Rozinanteri, buztana Afrikarantz begira ipiniz, eta sudurra itxi zion pixka batean, eztul-etzanda are eta handiagoa izan zedin).

Eta halaxe jazo zen: hain izan zen bortitza eztanda hura, ezen bat-batean lehorrean ziren, lur berri batean, izugarriko piura farregarriz: Rozinante hankaz gora, goitik behera blai, eta eztulka; Kixote, berriz, metro batzuk atzerago,

baina hori bai, zutik, eta zaldiaren uhalak duintasunez helduz, zaldun ospetsuei dagokien bezala, ezer gertatu ez balitz lez.

Handik hurbil, ordea, ji-ji ja-ja batzuk entzuten hasi ziren. Haur beltzaran batzuk ziren. Leherketa entzun zutenean, beren jolasak utzi, eta hondartza-ertzera joan ziren, gertatutakoa ikustera. Hura algara! Ez zuten inoiz halako bikote bitxirik ikusi.

Hasieran irribarre herabeti besterik ez ziren haiek, ordea, gero eta ozenkiago bihurtzen ari ziren, eta On Kixote horretaz jabetu zenean, biziki haserretu zen.

—Goazemak hemendik, Rozinante, laster dizkiagu ume horiek gainean eta.

—Baina u-u-meak bes-terik a-a-txis!' ez di-di-ra —ihardetsi zion, zalduna lasaitu nahian.

—Bai, hala duk... baina... begira... horiek ere haurrak al dituk?

—Ha-ha-la i-i-i-zango di-di-ra.

Baina ez, ordurako helduak ere iritsi ziren, leherketa eragindako hotsaren beldurrez, haurrak handik eramateko asmoz. Baina hura ikusterakoan, beraiek ere ezin isilik geratu: algara ederra piztu zuten. Gainera, zaldiaren hitzak entzundakoan "Ala, Jilala" esan zuela iruditu zitzairen, eta "Horiek gure sinesmenekoak dituk, Ala goersten baitute. Goazen harrerarik onena eskaintzera" xuxurlatu zuen buruzagiak.

Kixote, ordea, gizon hura beste bati belarrira mintzatzen ari zitzaiola ikusi zuenean, izutu egin zen, eta Rozinanteri esan zion: "Orain, bai, Rozinante. Goazen hemendik lehenbailehen, honek ez dauka batere itxura onik-eta". Eta hala, bat-batean hanka egin zieten hain arabiar abegikorrei, haien harridurarako, ez baitzuten inongo intentzio txarrik.

HIRUGARREN ATALA:

On Kixote Basamortu Mantxa gabean

Denbora asko igaro zuten gelditu gabe, beldurraren beldurrez, Afrikaren iparraldeko itsasertzeko hondartza amaigabeak zeharkatzen eguzki gupidarik gabearen azpian. Egunak eta egunak bota zituzten bidean, atsedetik hartu gabe. Lasaitzen hasiak zirenean, ordea, berriro ere biziki izutu zitzaigun gure bikote xelebrea.

—Begira, ura gorria zegok. Izugarritzko sarraskiren bat egina izango ditek norbaitzuk inguru horretan. Gerra ote? Makina bat gizagaixo odolusten ari dituk nonbait. Goazen hemendik, barne lurraldetara, ea oasisen bat aurkitzen dugun.

Eta berriro ere itsu-itsuan abiatu ziren, baina oraingoan zoritxar handiagok: Kixotek hankak zabal-zabal zeramatzan, eta nahi gabe ahuntz talde batetik ihes egindako antxume bati buruan jo, eta bertan zerraldo erori zen. Gure jaun zaldunak mina hartu zuen, bai, baina antxumea, ordea, berehala zendu zen.

—Ene, bada! Orain ere ederra egin diagu! Nire behatz potoloa minez zeukat, baina tira, agian merezi izan dik.

—Zer? Merezi izan duela? Ia-ia bihotzekoak eman zidak eta...

—Bai, Rozinante kuttuna, bai, hala duk, baina ez al haiz konturatu egunak daramazkigula mau egin gabe? Eta istripua izan denez... ba... tira, ezin diagu aukera hau pasatzen utzi. Antxume errea baino gauza hobeagorik ia ez dago eta.

—Eta nola erreko duzu, jauna, hemen egurrik ez badago? Eta gainera, Jauna, gogoan izan nik ez dudala haragirik jaten. Zaldun ospetsu baten zaldi arrunt bat besterik ez naiz, eta belarra jaten segi beharko dut...

—Tira, tira, ez etorri orain horrelako lerdokeriekin. Nola edo hala zerbait asmatuko diagu sua egiteko. Gainera, antxumea hemen bazegoen, horrek esan nahi du oasisen batetik hurbil gaudela, ura, landareak eta palmondo batzuk ikusteko aukera izango dugula, eta beraz, zuretzako ere zerbait izango dela. Goazen, har dezagun antxume laketgarri hori, eta abia gaitezen berandu baino lehen.

Eta hala, Zaldun prestuak esan bezala, laster aurkitu zuten oasia. Hura poza! Biak, Zaldun eta zaldi, berehala hasi ziren zurrut egiten, ur ertzean burua makurturik, eta baita sabelarekin pentsatzen ere. Baina horra hor non agertzen den ahuntzaina hoge bat ahuntz, aker eta antxumez inguratutik.

—Akabo gure oturuntza! —pentsatu zuen bere baitan Kixotek— ederra egin diagu! Gizon horrek ikusten badu gure antxumea... berea dela esaten hasiko zaiguk. Zerbait asmatu beharra zegok.

Eginahalak egin arren, ordea, ezin izan zuen eskolarik gabeko Salem engainatu. Kixote bere trikimailu guztiak erabiltzen saiatu zen, baina alferrik: ez zegoen irtenbiderik. Antxume hura ondo baino hobeto ezagutzen zuen goibelduriko ahuntzainak, eta gainera instante batean kontatu zien biei hildakoaren bizitza osoa. Hura kontakizun hunkigarria!

Istripu hori dela-eta, zenbait lurralde arabiarretan auziak erabakitzeko duten modua ezagutu zuen: Atwah izenekoa. Horren arabera, gertakizun larriren bat jazotzen denean, alde bakoitzak bere hamuleh-a bildu behar du, hau da, bost belaunaldiz osaturiko familia zabala. Kixotek eta Rozinante horrelakorik ez zuten, noski, eta beraz, Salemek berak bilatu eta aurkitu zion ordeko hamuleh-a. Orduan ezagutu zituen Atwah-aren oinarrian dauden balioak: sharaf, (ohorea), hilm (jakinduria) eta karam (eskuzabaltasuna).

Guzti horren ondorioz, Kixote berriro begi onez ikusten hasi zen basamortua: hareen biluztasunak, idortasunak eta bakardadeak garbiak dirudite orain Zaldunaren begietan, makularik gabeak. Eta paradisuak datorkio berriz burura.

Bai, lorategi eta oihanekin inolako zerikusirik ez badu ere, bertan landare aztarnarik ere ez izan arren, basamortuan aurkitu zituen Kixotek paradisuaren irudi berritua, eta orduan ulertu zuen zergatik izan den betidanik hain erakargarri mundu honetatik eta hirien zorabioetatik urrun bizi nahi zutenentzat.

Basamortu, basamortu,
harea eta haizearen topaleku,

arruntentzat eskuragaitz den
presentzia misteriotsu.
Ondo ezkututzen dizkiezu
hainbat lilura eta sekretu.
Ezin dut ezer egin,
ez bada zure mirari isilak
behatu eta miretsi.
Zure altzoan hartu dituzun herri hauek,
hainbeste ibilaldiren ondorioz
alferrikako den guztiaz askatu dituzu,
eta herri libre eta aske bihurtu.
Nik ere horietako bat izan nahiko nuke.
Egidazu nomada, ibiltari,
egidazu zure zerbitzari.

Rozinante, artean, kezkatzen hasia zen, bere Jauna erraz horditzen baita inongo tantarik edan gabe ere. Ilusentziak lehen abisuak eman arren, On Kixotek burutazio, amets eta hitz ederretan murgildurik jarraitzen zuen. Halako batean gaua erori, eta zaldunak izarrei begira jarraitzen du bere diskurtsoarekin, izar kontaezinek ilargi beteari lekua uzten dioten arte.

—Zure bakardadea egunez ederra bazen, are eta ederragoa da, bada, gauetz. Eguzkiak erretzen zituen bazterrak dizkizu ilargiak orain laztantzen, argi zurbil eta apalez. Nahikoa dugu, ordea, argiño kuttun hori, berezko eta benetako argia barnean daramagunok, bidean ez galtzeko. Ez duzu, ez, isurbiderik behar, lohikeriarik sortzen ez baituzu. Nik zu nahi zintuzket mihise batean betekotu, zure gau-jantzirik ederrenean, oraintxe zauden bezala. Zergatik erdeinatu, zergatik nargatu bizitzak eskaini didan etenaldi hau? Ezingo dut horrelako zoriontasunik berriz dastatu! Zure enigmek liluratzen naute, zure begi ezkutuek aztoratzen. Ulisesena txiki utziko duen odisea dut nik burutuko, hiritik etorria izanik, hartzen banauzu zuretzakoz. Zu zara isiltasunaren habi,

zu guztia estaltzen duen hutsunearen sorterri,
askatasun osoaren aitzindari,
denborak eta espazioak garrantzia galtzen duten herri.
Bihozgabetzat zu,
eta lainotzat ni
hartzen gaituzte ergelek,
baina haien pentsamendu zirtzil eta hutsalak
eramango ditu haizeak,
usoen bularretako lumak bailiren.
Zu nahi zaitut bidelagun,

zu betiereko adiskide,
Mantxarik gabeko Zaldun honi dagokion lez,
nire artegatasun guztiak uxatzeko,
patuak erakutsi
eta zoriontasunez urratu beharreko
ildoari jarraitzeko,
nire arima sorginduko duen
ahalguztidunaren isla izateko,
nire antsia arintzeko, zorabioa urruntzeko,
aberastasun iragankorrei bizkarra emateko.
Zure itsasoan nahiko nuke gauero kulunkatu,
zure bihotz pilpiragarri
eta urrikigarrian izan atsedeenleku,
zure pasabideetan babesleku.
Nork dezake esan orain naizela ni zaldun erratu?
Biderik ez badago, ez dago bide-galtzerik.

Horrela jarraitu zuen gau guztian, solaskidez aldatuz, zeren hasiera batean hondar eta duna multzoekin soilik mintzo bazen ere, gero ilargiarekin, izarrekin, eta ametsekin hitz egiten ihardun zitzaigun. Rozinante, noski, berehala aspertu zen, eta burua ezik, beste gorputz atal guztiak hondarretan sartu zituen, basamortuko gau hotzari aurre egiteko, ez baitzuen bestelako estalkirik. Kixote, berriz, pentsamenduen berotasuna igaro orduko, eta benetako isiltasuna iritsi zenean, hoztu egin zen, eta izugarriko katarroa harrapatu. Gauerdia aspaldi iragana zen. Eguzkiari gutxi falta zitzaion sudur-muturra hodeiartzaren gainetik erakusten hasteko, eta berriro ere erabaki azkar bat hartu beharra zegoen: bertan geratuz gero, Kixotek lo hartuko luke nekearen nekez, eta goizeko eguzkiak kiskaliko luke basamortuko eguzkiari dagokion lez.

—Zergatik ez dugu hemendik alde egiten? —Itaundu zion Rozinantek Jaun Zaldun Katarrodun Ospetsuari— Hemen ez dugu ez oherik ezta estalkirik ere lo egiteko, ez ogirik gosea asetzeko, ezta botikarik zure katarro hori sendatzeko...

—Tira, tira, munduko altxorrik preziatuena aurkitu berri dugu, eta orain honekin zatoz? Oso oker zabilta hemendik berehala alde egingo dugula uste baduzu. Ez gara alferrik etorri honaino.

Eztabaida ozenak aurrera zerraien heinean, ordea, hotzak eta goseak ere parte hartu zuten, baina hori bai, hitzik esan gabe, ez baitute ahoa zabaldu beharrik izaten jendearen erabaki eta iritziak aldarazteko.

Egunsentia laster zetorren, eta Zaldun prestuak erabakiren bat hartu beharra zuen. Zaldiaren argumentuak serioski hartu zituen, eta instante batean erabaki zuen:

—Alde egingo dugu, bai, baina laster izango nauzue berriro ere zuen beso goxoetan. Orduan ni bakarrik etorriko naiz, zaldi koldar hori gabe, inolako lotura eta katerik gabe. Libre.

On Kixote zerura begira geratu zen, eta izarrei honela galdetu zien: — Esadazue, mesedez, Ekialdeko jakitunen aholkulari izan zareten izar jakintsuok, zein norabide hartu behar dugu basamortutik irteteko?

—Berriro ere denboraren eta espazioaren hesi magikoa zeharkatu beharko duzue, argitasunetik iluntasunera daraman hesia —ihardetsi zuen ahots sakon batek.

Eta horrela, berriro ere saihestezinezko bi dimentsio horiek uztartuz eta gaindituz, bidaia xederik gabeko baterantz abiatzen zaigu bikotea.

LAUGARREN ATALA:

Kixote Mantxakoa hiri modernoan

—Hau duk marka! Bizitza osoa eman diat Proust-en promesse de bonheur delako zorientasuna bilatzen eta eskaintzen, eta orain iluntasunera joan behar?

Jauzi magikoaren ondoren hiri moderno batean ditugu Kixote eta Rozinante, noraezean, hirian galdurik baileude. Modernitatearen esperientzia estetikoa edota desestetikoa bizitzeko aukera dute, beraz, eta ezin horrelakorik alferrik galdu, noski. Arestian basamortua sakralizatu zuen Zaldun berbera prest dugu orain hiri handi batean amiltzeko, begiak itxi eta Paris edo New York bezain nabarki populaturik dagoen leku batean murgiltzeko prest.

—Begira, Rozinante, ez al da hau zoragarria? Hemen, basamortuan bezalaxe, nire arima bakartia bakarrik dago pertsona guzti hauen artean, jendez osaturiko itsaso kulunkari honetan. Erotika apur bat ere badute mugimendu guzti hauek, erakargarriak eta erdi estaliak direlako, bakartiak direlako, laztan-egarriz direlako.

Zaldia burua non sartu ez zekielarik zegoen. Basamortuan sikiera ez zituen inork ikusten, baina hemen... Ibiltarien begirada jakin-min handiz pausatzen zen haiengan.

—Museoren batetik ihes eginak izango dituk hauek —pentsatu zuen beti kalean presaka dabilen horietariko batek.

Azkenean, Rozinante hain lotsatuta zegoenez, zalditoki batera joateko baimena eman zion Jaunak, eta bakar-bakarrik ekin ahal izan zion bidaia berri eta bereziari. Gustura zen Kixote, zeren bere iritziz pertsona batek bere gailurrera egin beharreko bidean bakarrik behar du egon.

Hirian gaua erori berria zen, eta jende gehiena lotan zegoen ordurako. Baina ez guztiak. Neoizko argi-itzaletan dama gazte bat zegoen, Kixoteri begirada malenkoniatsua zuzenduz, bere jantzirik ederrenez apaindurik.

—Dama hori niretzako modukoa da, panpoxa eta liraina, Ni bezalako Zaldun adoretzu eta bipil bati dagokiona.

Artean ezertan gauzatu ez zen maitasun gazte hark, halako ukitu berezi batez tindatu zuen hiria On Kixoteren begietan, oso giro bitxia sortuz. Maitemintzearen esperientzia basamortuko isiltasunarekin izandako esperientzia mistikoekin alderatzen hasi zitzaigun kale erdian, edonork entzuteko modukoa. Eta noski, laster inguratu zen jende multzo handi bat bere inguruan.

—Kaleko antzerkia egiten duten horietako bat izango da hau —esan zuen batek.

—"Ke ba" —erantzun zion alboko agure konkordun batek— ero-etxetik ihes egindako tipo bat dek. Nirekin batera egon huan urteetan armadan, eta han sortu zitzaion Espainiako "Don Quijote de la Mancha"rekiko zaletasuna. Harez gero horrela zebilek, Kixote bera izango balitz bezala, baina nik bazekiat hori ez dela egia...

Kixotek belarri zorrotza duenez, ondo baino hobeto entzun zituen komentario horiek, eta egia esateko irrikan bazegoen ere, isilik behar izan zuen geratu, amodio hura ez galtzarren. Benetako eroa bailitz alde egin zuen, bihotza hala-moduz gatibu hartu zuen edertasunaren bila.

Baina gazte prezios hura sorgina bailitz desagertu zen hiriko labirintoetan zehar, eta On Kixote oharmena galdua ote zuen pentsatzen hasia zen, oroimenak, itxaropenak eta errealitatea nahasten zituelako noraezeko ibilaldi hartan.

—Zakur deslaien antzera nabil, bat-batean nire nagusi bihurtu den horrek utzi egin nauelako. Baina aurkituko zaitut, xarmant hori, ez baitu Zaldun batek hain erraz amore ematen dama gazteen aurrean. Gainera, zenbat eta zailtasun gehiago gainditu, hainbat eta balio handiagoko bihurtzen da amodiozko istorioa. Munduko denbora guztia hartuko dut zuregana iristeko, eta oraina nahikoa ez bada, iraganean errotzen den etorkizuna asmatuko dut, edo denboraren gurpila geldiaraziko dut zu aurkitu arte.

Lehen ere bere ametsetan murgildurik bizi bazen, oraingoan ez zen gutxiagorako. Aitzitik, inoiz baino urrutirago zeuden bere begi eta pentsamenduak. Kale bazterreko zakur eta katuak ere beldurtu egiten ziren haren presentzia hutsaz, haren begiradaz. Errealitatearen kontzientzia erabat galdua zuen, eta ez ezkerrera ez eskuinera begiratu gabe zeharkatzen zituen kotxez gainezka zeuden kale bizidunak.

Eta noski, gertatu beharrekoa gertatu zen: kale erdian zegoelarik kotxe baten aurrean ipini zen, eta dast!, gure zaldun erratua zerraldo erori zen lurrera.

—Erotuta zaude, ala? —esan zion txoferrak— nola ibili daiteke horrela kale erdian, alboetara begiratu gabe?

—Ai, ai, ai, hau mina! —zioen Kixotek, ingurukoei kasurik egin gabe.

—Ondo merezia duk, arraioa, ez hago umekerietan aritzeko adinean —erantzun zion besteak, eta bakarrik utzi zuen kale erdian.

Hura atsekabea gure Jauntxoarena! Kanean bakar bakarrik, ametsetako dama urruti, hezurren bat baino gehiago hautsita, eta abandonatu izanaren penaz.

—Bakardade hau basamortukoa baino askoz jasangaitzagoa da! Han, bederen, bakarrik ginen, baina hemen... jendea besterik ez kaleetan, eta euli bat bainintz tratatzen naute. Hiriko jendea ez da jende, hiritarrak ez dira hiritar,

ai! ez baitute zibilizazioa zer den ulertu. Ez dakite zer nolako hiriak zituzten greziarrek, Atenas, Cartago... haiek bai hiriak!

Horrela jarraitu zuen, minez, baina pentsamenduei uko egin gabe, bere mundutik irten gabe, anbulantzia bat agertu zen arte. Dei anonimoren batek abisatuko zuen, noski, eta hor zetozen, sirena-hots beldurgarriz hilak ere berpizten. Ospitalera eraman zuten, eta ebakuntza bat egin ondoren, egun batzuez gurpil-aulkian ibili behar zuela esan zioten.

Erizainak ibilgailu berria eman orduko zapata berriak dituen ume bat bezain zoriontsu zen. Hura plazera, gurpil gainean hain leunki mugitzea. Ospitaleko pasilloetan atzera eta aurrera ibili zen, erizaina harrituak alto eman arte. Hura ez omen zen inorentzat jolas-toki. Beraz, mesedez handik alde egiteko eskatu zioten.

Kalera irten zen, Paris la nuit ikustera, mozkor eta artistei konpainia egitera. Ordura arte inoiz gurpil gainean egon ez zen Zalduna erabat hunkituta zegoen esperientzia berriarekin.

—Gurpil hauekin zaldi gainean baino askoz ere hobeto ibiltzen da! Hau armonia! Arrazoi zuten biribiltasuna perfekzioaren irudi dela ziotenek, den dena biltzen baitu bere baitan, desplazamendurik gabeko mugimendu zikliko eta errepikakorrak, eta ardatzarekiko mugimendu lineala. Ardatza eta periferia bateratzen ditu erradioen bidez elkar lagunduz. Horra hor osotasunaren batasuna eta batasunaren osotasuna! Biribiltasunak ematen dio unibertsaltasuna hiriari, biribiltasunak leuntzen dizkio forma zorrotzak etxeei, abegikorragoak bihurtuz. Orain hiria ere eder da, itxaropenez josia, nostalgiaz betea.

Ia-ia goizeko sei t'erdia ziren. Enarek eta zabor-biltzaileek aurre hartu zioten eguzkiari, eta ihintzaren freskotasunak atseginez zituen tindatzen gaueko airean zintzilikaturiko amets oro...

On Kixotek ez zuen lo egin gau hartan. Edo, hobeto esanda, ezin izan zuen loak hartu. Zoriontasunez horditurik zegoen... pozez gainezka. Oso bidaia luzea egiteko prest zegoen, leku berri batera, betirako gaua ezagutzera, eta bertso batez agurtu zitzaigun:

Gaueko hiri, gauaren argi,
esker onez natorkizu
eman didazulako bizitza berri.
Orain nahi nuke izan, beraz,
zure ondoan betirako zelatari.
Emaiozu amaiera ona, mesedez, guzti honi.